Esanahi berriak

Charo Ayesa Bravo
Adopzio-ama 2008tik
Alabaren jaioterria: Filipinak

Haren hasiera-hasieran ezagutu nuen Ume Alaia elkartea, ia jaio berria zela, luzeegi jo arren azkenean gauzatu ahal izan nuen nazioarteko adopzio baterako eskabidea egin eta denbora gutxira.

Espero-urte luze haietan –bederatzi urte, zehazki–, denbora erruz izan nuen askotariko profesionalen trebakuntza-hitzaldietara joateko. Haiek, ekitaldiz ekitaldi, adopzio-kondizioaren mundu ezezagun baina erakargarri hartara eraman gintuzten, jakin genezan zer hartu behar genuen kontuan bizitzaren hasieratik lotura biologikoak etenak eta hautsiak zituzten ume haien berezitasunak kudeatzeko, ulertzeko eta errespetatzeko.

Kontzeptu batzuk adieraberriturik sartuz joan zitzaizkidan hiztegian eta gogoan: atxikimendu segurua, abandonua, dolua, identitatea, trauma, zauri primarioa, jatorriaren bilaketa, autoestimua, tratu onak, loturak, erresilientzia…

Asko ikasi nuen, eta asko partekatu. Zorte ikaragarria izan zen bide hori konpainian egitea, eta, trebatzen ez ezik, itxuraz sekula amaitzekoa ez zen itxaronaldi luze hartan ez etsitzen ere lagundu zidan horrek

Asko ikasi nuen, eta asko partekatu. Zorte ikaragarria izan zen bide hori konpainian egitea, eta, trebatzen ez ezik, itxuraz sekula amaitzekoa ez zen itxaronaldi luze hartan ez etsitzen ere lagundu zidan horrek.

Bi espediente, bakoitza herrialde batera. Lehenengoarekin, bete-betean ikasi nuen zer den eraginkortasunik eza, seriotasun falta, gezurrak, ustelkeria. Gogorra, ezta? Halako batean, emozionalki garesti atera zitzaidan arren, erabaki nuen amaiera eman behar

niola etapa hari, eta beste norabait begiratu. Garai hartan, jada hobeto jakin zitekeen zein zen adoptatzeko aukera ematen zuten herrialdeetako errealitatea, eta, hilabete batzuetan kontsultak egiten ibili ondoren, beste espediente baterako agiri ugariak lortzeko helburuari heldu nion. Bidali nuen halako batean espedientea, onartu zuten, eta, orduan bai, une oro uste osoa izan nuen prozesu hura garbia, errespetuzkoa eta ondo egina izango zela.

Goiz batean, Diputaziotik deitu zidaten, eta esaldi magiko bat entzun nuen: "Neska adingabe bat esleitu zaizu". Egun hartan, emozioz blai, bizitza betiko irauli zitzaidan. Halakoetan, eduki uste ez zenuen indar bat pizten zaizu, indar izugarrizko bat gainezka egiten dizuna, eta abian jartzen ditu ume horrengainaino eramango zaituzten prozedurak.

Abenduaren bukaeran joan nintzen alaba izango nuenaren bila, eta 2008ko urtarrilaren 6an etxeratu ginen. Bederatzi urte zituen. Txundigarria eta hunkigarria egin zitzaidan haren ausardia eta deliberamendua hain gertutik ikustea. Izan ere, ni neure mundura itzuli berria nintzen harekin, baina hark atzean utzia zuen bere mundua: bere hizkuntza, eskola, umezurtz-etxea, lagunak, ordura arte zaindu eta babestu zuten pertsonak, paisaia, koloreak, usainak… Izena baino ez zuen ekarri berekin. Eta oroitzapenak.

Desafio ugari izan ditu, desafio handiak, batzuk mingarriak ere bai, zeren, nahiz eta zeureganatzen ari zaren bizimodu berri hori gustuko duzun eta ez duzun galdu nahi, aldi berean halakoetan dolu bizi bat hasten baita, ez daukazunagatik, haren falta izugarri sumatzen duzulako… Uste dut Ume Alaia elkartearen bidez trebatu ez banintz segur aski ezingo nituela ez ondo ulertu eta ez interpretatu haren tristuraren, amorruaren eta oinazearen seinaleak, eta, beraz, ez nuela asmatuko horietan nola lagun egin, eta ez nuela sinetsiko gertatzen ari zen guztia sendagarria zenik, eta premiazkoa.

Bide zirraragarria egin dugu elkarrekin, eta bizigarri franko izan ditugu, baita erronkak ere

Nire alaba, berez, alaia zen, aktiboa, jendekina, amultsua, deliberatua, eta den-denak pizten zion jakin-mina. Bide zirraragarria egin dugu elkarrekin,

eta bizigarri franko izan ditugu, baita erronkak ere, inoiz kirioak dantzan jarri dizkidatenak baina era berean nire baitan neukan onena aterarazi didatenak, baita nire familiaren onena ere, beti egon baita hor hurbilean, babes sendo, maitekor eta baldintzarik gabea emanez.


Argazkia: Patxi Polo

Eta, bai, oso argi dut Ume Alaia elkarteko zerbitzuak eta familiak izan direla eta oraindik ere badirela niretzat zutarririk handiena eta babesik onena adopzio-ama gisa nola jokatu ikasteko. Hitzaldi eta tailerretan ez ezik, guraso-taldeetan ere parte hartzen dut: hilean arratsalde batez elkartzen gara, profesional baten begirada arretatsu eta jakintsuaren pean.

Urte batzuk badaramatzat talde horietako batean, eta ez zait erraza azaltzea zer izan den niretzat. Adierazi nahi dena horrela adierazi ahal izatea, besterena entzutea, gogoetatzea, partekatzea, bai egoera zailetan eta bai lorpen- eta poz-garaietan… hori dena babes handia izan da lehen eta da orain, baita pribilegio izugarria ere. Ni neu ez nintzateke pertsona bera izango ordu horiek guztiak eman ez banitu gainerako kideekin eta Cristinarekin, hoberako orientatzen eta eraldatzen gaituen psikologo bikainarekin.

Gainera, iruditzen zait nire alabarentzat ere garrantzitsua izan dela Ume Alaia, familia handi eta maitekor bat, bertan aurkitu baitzituen familia berri batera iritsiak ziren beste ume batzuk, naturan jolasean egunpasa egiteko edo adopzio-kondizioaren inguruko tailer batean parte hartzeko moduko jende atsegina. Aurrerago, bertan aurkitu zuen, halaber, nerabe-talde bat, norberaren kontuez besteekin hitz egiteko. Zein garrantzitsua den, izan ere, berdinkideekin norberaren esperientziez aritu ahal izatea!

Niretzat beste esperientzia atsegin bat izan da adoptatzea buruan darabilen jendeari nire bizipenak kontatzea, zeren ohikoa baita dudak, ziurgabetasunak eta beldurrak izatea, eta posible baita halakoak konpondu edo

pixka bat arintzea bizipen horien berri emanez eta elkarteko familien arteko babes horren bidez.

Horregatik guztiagatik eta beste arrazoi askorengatik, zorionekoa naizela uste dut, eta bihotzez eskerrak ematen dizkiet Ume Alaia izeneko proiektu hau hutsetik sortzeko ahalegina egin eta ilusioz beren denbora eskaini diotenei eta pertsona horiek mugitu dituzten hariei, egitasmoak ekarpen izugarria egiten baitie, zentzu askotan gainera, adopzio-familia osoei, hala gurasoei nola seme-alabei.

Adore-beso horiek, enpatia-, ulermen- eta zaintza-beso horiek luzatu egiten dira, eta, iristen direnean, ekarpena egiten diote gizartearen gainerakoari, hura hobea egiteko. Bidezkoa da hori esatea eta kontuan hartzea, ez baita txikikeria.

Bukatzeko, urteotan egindako lana aintzatetsiz, hitz hauekin aitortza egin eta eskerrak eman nahi dizkiet bai elkarteko kideei, lehen bezala orain lan boluntario horretan buru-belarri aritzeagatik, eta bai langileei, daukaten onena ematen dutelako proiektu hau bultzatu eta hobetzeko. Guztiei, eskerrik asko.

Zorionak denoi 25 urte betetzeagatik
eta mila-mila esker, bihotzez.